



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

UDALAREN OSOKO BILKURA 2004ko martxoaren 30eko aparteko bilera

BERTARATU DIRENAK ALKATE-UDALBURUA

EAJ-PNV/EA.- KARMELO SAINZ DE LA MAZA ARROLA jn.

ZINEGOTZIAK

EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jn.
EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA and.
EAJ-PNV.- FCO. JAVIER BIDEA MOLINILLO jn.
EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI and.
EAJ-PNV.- BIXENTE BARREIRO ASENSIO jn.
EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jn.
EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CURIEL jn.
EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO jn.
EAJ-PNV.- GUILLERMO MATEO KAREAGA jn.
PSE-EE-PSOE.- SUSANA GONZÁLEZ RÓMULO and.
PSE-EE-PSOE.- JOSÉ M. TOLEDO CAÑAMERO jn.
PSE-EE-PSOE.- NIEVES HURTADO URTIAGA and.
PSE-EE-PSOE.- MERCEDES ANGULO ORDOZGOITI and.
PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.
PP.- IGNACIO GAMERO DELGADO jn.
PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ jn.
PP.- AIALA EGUILUZ RODRIGUEZ and.
IU-EB.- IÑAKI GOMENDIOURRUTIA SÁINZ jn.
IU-EB.- RUBEN BELANDIA FRADEJAS jn.
EA.- ERNESTO A. TRIGUEROS S. COLOMA jn.

EUSKARA ITZULTZAILEA

XABIER PAYÁ jn.

IDAZKARIA

M^a VICTORIA ERKIAGA ARANGUENA and.

Leioako udaletxean, bi mila eta lauko martxoaren hogeita hamarreko ordu bata dela, elizate honetako udalaren osoko bilkura bildu da aparteko bilera egiteko. **Alkate-Udalburua, Karmelo Sáinz de la Maza Arrola** jauna izan da bileraren burua eta idazkariak, **M^a VICTORIA ERKIAGA ARANGUENA** andreak, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta egintza zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengoa osatzen dute. Alkatetza-Udalburutzak aurretik egin die aparteko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen oinarriak araupetu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2.b) artikuluan ezarritakoa, apirilaren 18ko 781/1987 Legegintzazko Errege Dekretuaren 48.2 artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udalbatzen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 78.2 eta 80 artikuluetan xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan, lehenengo deialdian eta atearak itxita, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, aparteko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

I.- ERABAKITZEKOAK

1.- UDALAREN OSOKO BILKURAK 2003ko ABENDUAREN 23an EGINDAKO BATZARRAREN AKTA ONESTEA: Izenburuan aipatutako bilkurako akta onetsi gabe dagoela aipatu da; beraz, udalbatzaren osoko bilkurak onesteko jarri da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalbatzak, Osoko Bilkuran eta **aho batez**, 2003ko abenduaren 23ko bilerako akta onetsi du.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

2.- PLAN OROKORRA ALDATZEKO ESPEDIENTEA HASIERAN ONESTEA, ERABILERAREN GAINEN BALIO-KOEFIZIENTEAK HAZTATZEARI DAGOKIONEZ, BATEZ ERE ETXEBIZITZA LIBREA / BOE HAZTAPENEAN: 2004ko martxoaren 23an Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran onetsi zen Alkatetza-Udalburutzaren 235/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari; osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumen Saileko Informazio Batzordeak 2004ko martxoaren 17an hartu zuen 38. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Udaleko Zerbitzu Teknikoek, udalaren osoko bilkurak 2003-03-20 egunean hartutako 12. erabakiaren edukiaren berri eman dute. Horren bitartez, Leioako udalak konpromisoa hartu zuen Plan Orokorra Aldatzeko espedientea hasteko, erabilera bakoitzaren balio-koefizienteak zehazteko, eredu aprobetxamendua kalkulatu ahal izateko. Konpromiso hori, bere garaian, Lamiako-Txopoetako BBBPB behin betiko onestea ekarri zuten tramiteetan udaleko ordezkarien eta Bizkaiko Foru Aldundiko Hirigintza Saileko ordezkarien artean izandako elkarrizketen emaitza izan zen.

Ondorioz, AYTASA enpresa kontratatu zen horri buruzko erabakia hartu ahal izateko euskarri teknikoa egin zezan.

Enpresa horrek honako izena duen agiria aurkeztu du:

“Egoitza erabilerarako (etxebizitza librea/BOE) lurzoruaren balorazioari eta haztapan erlatiboko koefizienteari buruzko txostena, Leioako HAPOko Hiri Lurzoru eta Lurzoru Urbanizagarriaren barruko honako sektore eta arloetan:

- Lehenengo lau urteko barruko sektoreak.
- Earle arloa.
- Sakoneta Hutsik arloa.
- Ibaiondo Hutsik arloa.”

AYTASA enpresak, era berean, honako koefiziente hauek proposatzen ditu etxebizitza libreak/BOEri dagokionez:

ARLO/SEKTOREAREN IZENDAPENA	ETXEBIZITZA LIBREA/BOE KOEFIKIZIENTEA
Ubedeneko sektorea (1)	0,2050
Laubideko sektorea (1)	0,1848
Larrakoetxeko sektorea (1)	0,1972
Earle arloa	0,17
Sakoneta Hutsik arloa	0,20
Ibaiondo Hutsik arloa	0,16

(1) Lehenengo lau urtekoaren batez besteko koefizientea 0,1957 izango litzateke.

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumen Saileko Informazio Batzordeak, gaiaren gainean eztabaidatu ostean, honako jarduerak egokiak direla erabaki du

- Hasieran onetsiko da, udalaren osoko bilkuraren erabakiaren bitartez, HAPO aldatzeko espedientea, AYTASA enpresak emandako azterlanean adierazitakoaren arabera. Hala ere, koefizienteek arloetan duten oszilazioa txikia dela ikusita, horiek 0,2 balioaz bateratzea erabaki da, berau baita duela gutxi onetsitako lur-bereizketetan (Pinosolo eta Mendibile arloak) aplikatu beharreko parametroa.

Era berean, Hirigintza kudeatzeko Araudia onetsi zuen abuztuaren 25eko 3.288/1978 Errege Dekretuaren 87. artikuluan ezarritakoaren arabera, lur-bereizketen tresnetan Planean ezarritako koefizienteak eta merkatuaren benetako errealitatea behar



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

bezala koordinatzeko asmoz, espediente honetan honakoa dioen klausula erantsiko da:
"Leioako udalak aipatutako balorazio-koefizientea aldatu ahal izango du, eskubide eta kargen berdinbanaketa espedienteak tramitatzean, betiere, arrazoiz egiaztatzen bada ez datorrela bat higiezinaren merkatuaren errealitatearekin. Aldaketa eraginkorra izateko, gutxienez kudeaketa unitatearen aprobetxamenduaren %75 hartzen duten titularren akordioa beharko da; gainera, inola ere ezin izango die hirigintzako parametroei eragin, hau da, bereizketa irizpideetarako bakarrik erabili ahal izango da".

- Hasieran onetsi ondoren, jendaurrean azalduko da; horretarako iragarkiak argitaratuko dira BAO n eta egunkarietan; bada, hilabeteko epea emango da espedienteaz aztertu eta alegazioak aurkezteko, apirilaren 9ko 1346/1976 Errege Dekretuak onetsi zuen Lurraren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen testu bat egineko 41. artikuluan adierazitakoari jarraiki.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena eta ALKATETZA UDALBURUTZAK gai hori onesteko **dekretua eman du**. Bada, gai hau udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalbatzak, osoko bilkuran, **aho batez** erabaki du Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatzeko espedienteaz hasieran onestea, Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumen Saileko Informazio Batzordeak emandako irizpena guztiz berretsiz.

3.- LEIOAKO UDALAREN ETA SORTARAZI GIZA GARAPENERAKO KLARETAR ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA: 2004ko martxoaren 16an Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran onetsi zen Alkatetza-Udalburutzaren 222/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari; osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hezkuntza eta Hizkuntza Politika Saileko Informazio Batzordeak 2004ko martxoaren 9an hartu zuen 51. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Gai honi dagokionez, Behargintzako zuzendariak honakoa jakinarazi du:

"SORTARAZI giza garapenerako Klaretar Elkarteak, 2000. urteko irailetik aurrera, bazterkeria egoeran egoteko arriskuan dauden taldeak gizarteratu eta laneratzeko ekintzak garatzen ditu Leioako udalaren lokaletan (Langilleria kalea, 180, Lamiako); izan ere, Leioako Udalak eta aipatutako erakundeak horretarako hitzarmena sinatu zuen. Hala ere, hitzarmena amaitutakoan, ekintza zehatzak egin dira gaur arte, akordio berezien bitartez.

Garatzen duten lanari esker, 2002. urtean hasi ziren Leioako Behargintzak kudeatu zituen OPEA Orientazio Programa guztiak amaitzea ahalbidetzeaz gain, erakunde biek auzoaren onerako egindako jarduera guztiak ere amaitu dira, Izartu Planaren Memorietan jakinarazi izan dugun bezala. Beraz, Leioako Udalarari eta Leioako Behargintzari, erakunde bien artean hitzartutako jarduerekin jarraitzea komeni zaie, biek dituzten baliabideak berrantolatuz.

Arestian adierazitakoaren mesedetan, SORTARAZI giza garapenerako Klaretar Elkarteak, Leioako udalak Langilleria kaleko 180. zenbakian dituen lokalak (1. esk. eta 2. esk. ezk.) prekarioan lagatzea eskatu du; izan ere, gune horiek Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako lanerako prestakuntza programak egiteko, Langai bitartekaritzarako, oinarrizko informatika ikastaroak emateko eta herri erakundeek diruz laguntzen



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

dituzten gainerako ikastaroak emateko erabiltzen dira. Horretarako, altzariak, bere ekipamendua eta materialak jarri dituzte udalaren esku.

Lankidetzaren horren ondorioz, lokala 2006ko abenduaren 31ra arte lagatzeko hitzarmen proposamena sortu da (erantsi dena).

Leioako Behargintzak uste du aipatutako hitzarmena sinatzea positiboa izango litzatekeela, Leioako Udalararen eragiten dioten gastuek eraikinaren mantentze-lanak eta argi, ur, energia eta komunikazio kontsumoak hartzen dituztelako. Gastu horiek urtero finantzatzen dira Izartu programaren kargura, urtean 70.000 euro erabiltzen baititu Lamiakoko langabetuen taldearentzako enplegu ekintzak egiteko.

Era berean, udal lokalean garatuko diren jarduerak estaliko dituen erantzukizun zibileko aseguruaren harpidetzeko eskatu zaio SORTARAZI giza garapenerako Klaretar Elkarteari.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika, Prestakuntza eta Enplegu Saileko Informazio Batzordeak aldeko irizpena eman dio SORTARAZIrekin hitzarmena sinatzeari, proposatutako lokalak doan lagatzeko Behargintzako zuzendariaren idazkian adierazitako helburuetarako; hitzarmenak 2006ko abenduaren 31ra arte izango ditu ondoreak.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena eta ALKATETZA UDALBURUTZAK gai hori onesteko **dekretua eman du**. Bada, gai hau udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeke ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalbatzak, osoko bilkuran, honakoa erabaki du **ahoko batez**:

1.- Doan lagako zaio SORTARAZI giza garapenerako Klaretar Elkarteari Udalararen Langillaria kaleko 180. zenbakian (1. eskuina eta 2. eskuina, ezkerrean) dituen lokalen erabilera.

2.- Espedientea jendaurrean azalduko da 15 eguneko epean, alegazioak aurkeztu ahal izan daitezkeen. Horretarako, iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udaletxeke iragarki-oholtzan.

3.- Jendaurrean azaltzeko tramitea amaitutakoan, 1372/1986 Errege Dekretuaren 109. artikuluan xedatutakoaren arabera, Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen eta Lurralde Ekintza Sailari emango zaio lagapen honen berri.

4.- Alkate-udalburu jauna ahaldunduko da lokal horiek lagatzeko hitzarmena sinatzeko, bai eta erabaki honek ondorean izan ditzan beharrezko agiri publiko zein pribatu guztiak sinatzeko ere.

4.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN KONTRATUA ALDATZEA: 2004. URTERAKO PROPOSATUTAKO PREZIOA ONESTEA ETA ATZERAPENAK ORDAINTZEA:

2004ko martxoaren 16an Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran onetsi zen Alkatetza-Udalburutzaren 235/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari; osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Ogasun eta Kontu Berezien Informazio Batzordeak 2004ko martxoaren 10ean hartu zuen 63. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Carlos Katarain Gutiérrez jaunak, "Asociación de Asistencia Integral LAGUNDUZ" elkartearen izen eta ordezkartzan, idazkia aurkeztu zuen. Bertan, ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN Kudeaketa Kontratuaren oreka ekonomikoa berrezartzeko eskatu zuen.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

GERTAERA: Udalaren osoko bilkurak 1994-07-28 egunean egindako ohiko bileran hartutako erabakiaren bitartez, aipatutako zerbitzuaren kontratazioa eraendu behar zuten baldintza juridiko, ekonomiko eta administratiboen plegua onetsi zuen.

GERTAERA: Udalaren osoko bilkurak, 1994ko azaroaren 10ean, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua emateko deitutako lehiaketa "Asociación de Asistencia Integral LAGUNDUZ" (IFK: G-48682678) kontratistari adjudikatzea erabaki zuen; prezioa 1.997 pezeta orduko. Kontratua sei hilabeterako egin zen, eta gehienez 10 urterako luzatu ahal izango litzateke, onetsitako Baldintzen Pleguan adierazitakoaren arabera.

GERTAERA: 2003ko abenduaren 23an LAGUNDUZ TALDEArekin sinatutako kontratuaren indarraldia 2004ko azaroaren 30era arte luzatzea erabaki zen. Era berean, kontratuaren zenbatekoa kontsumoko prezioen indizearen arabera gehitzea ere erabaki zen, horretarako onetsitako baldintzen pleguan ezarritakoaren arabera.

GERTAERA: "Asociación de Asistencia Integral LAGUNDUZ" elkarteak idazkia aurkeztu zuen 2004ko otsailaren 3an. Idazki horrekin batera, Azterlan ekonomiko finantzarioa ere aurkeztu zen, kontratuaren berrezarpen ekonomikoa egin behar zela adieraziz. Hona hemen eskatutakoa, zehatz-mehatz:

A) Kontratuaren oreka ekonomiko finantzarioa berrezartzea, LHK-k iragan uztailaren 10ean emandako arbitrajeko epaiaren arabera eta Bizkaiko Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren Hitzarmen Kolektiboa 2003/11/03 eguneko 210. BAO-n argitaratu izanaren ondorioz. Horren arabera, orduko kostuaren gehikuntza %4,20koa da, guztira 16,60 €/orduko lortuko litzatekeelarik.

B) 2004/01/01 egunetik aplikagarri dauden prezioak berrikustea, 2003. urteko aurreikusitako KPI %2,6koa dela kontuan izanda, eta Hitzarmenean oinarritzko soldatari eta lekualdatzeei buruz bildutako gehikuntzak aplikatzea, %1 eta %1,07, hurrenez hurren.

C) Ondorioz, 2002ko urtarrilaren 1etik 2003ko ekainaren 30era arteko zenbatekoak ordaintzea, 2003ko uztailaren 1etik 2003ko abenduaren 31ra arteko zenbatekoak ordaintzea, 2003. urteko prezioa azaldutakoaren arabera eguneratzea eta 2004. urterako proposatutako prezioa onestea eskatu dute,

GERTAERA: Kontuhartzaitzako Administrazio Nagusiko Teknikariak txostena egin zuen 2004ko martxoaren 10ean; bertan adierazitakotik ondoriozta daiteke honako asmoak onartu behar direla, bertan bildutako Azterlan Ekonomikoan oinarrituta:

1 10.109,81 € ordainduko dira 2002/07/01 egunetik 2003/06/30 egunen arteko atzerapenen ordainetan.

2 2.738,43 € ordainduko dira 2003/07/01 eta 2003/12/31 egunen arteko atzerapenen ordainetan.

3 Kostuaren gehikuntzari dagokionez, gehienez %2,7ko gehikuntza ordaindu beharko da gaur egungo orduko prezioaren gainean (15,93 €). Hau da, gaur egungo 15,93 €-etatik 2003. urterako 16,36 €-ra igaroko litzateke.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

4 2004. urteko prezioari dagokionez KPIren %2,6ko igoera aplikatu behar zaio 2003. urtekoari, gehi oinarriko soldataren %1 (0,26 euro), gehi minutu bat lekualdatzeei dagokienez (0,15 euro). Horren guztiaren ondorioz, 2004. urterako, 17,18 €-koa izango litzateke orduko prezioa.

Laburbilduz:

2002 eta 2003. urteetako atzerapenen ondorioz, 12.848,24 € ordaindu behar dira.
2004. urtean zerbitzua emateari aplikatu beharreko orduko prezioa 17,18 €-koa izango da.

GERTAERA: Sinatzaileak, Txosten Teknikoaren ondorioak onartzen dituela adierazi du.

GERTAERA: Udal kontuhartzaileak jakinarazi du kreditu nahikoa dagoela aipatutako berrezarpen ekonomikoa egin eta prezioak berrikusteko.

OINARRIA: Kontratu hau tokiko zerbitzu publikoen hitzarmen gisa dago tipifikatuta baldintza juridiko, ekonomiko eta administratiboen pleguan, Tokiko Araubideen Oinarriak arautu zituen 7/1985 Legean xedatutakoaren, Herri Administrazioetako kontratazio legerian xedatutakoaren eta Udalbatzen Zerbitzuaren Araudian xedatutakoaren arabera eraendu dena.

OINARRIA: Aipatutako pleguaren 8. Klausulan ezarritakoaren arabera, erabakitako orduko prezioa eguneratu egingo da, Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratutako Nazioko Kontsumoko Prezioen Indizeak duen gorakada edo beherakada aplikatuz

8. Klausulak honakoa ere badio: *“alderdi biak ados egonda kontratua luzatzea erabakiko balitz, luzatutako epe horretan prezioa urte horretako urtarilaren 1etik aurrera eguneratuko da eta egun horretatik aurrera izango ditu ondoreak, egutegiko aurreko urtean egondako kontsumoko prezioen indizearen bilakaerari egokituz”.*

Aurreko atalean aurreikusitako kasuak alde batera utzita, ez da beste inolako prezio berrikusterik egingo, ez eta Udalbatzen Kontratazioari buruzko Araudian bildutako arrazoiengatik ere, kontratatutako zerbitzua osatzen duten elementuen kostuek aldaketak izan arren eta, batez ere, langileen soldatak aldatu arren.

OINARRIA: 2004ko martxoaren 10ean, espedientean agertzen den txosten juridikoa egin zuen Udaleko Idazkaritza Nagusiak. Bertan adierazitakoaren arabera, aztertzen gabiltzan kasuan ez dago kontratuaren ekonomian eragiten duen xedapen orokorrik (“factum príncipes”). Hain zuzen ere, sektoreko enpresa guztiek bete beharreko arbitrajeko epaiaren ondoriozko probintzia mailako hitzarmena onesteak nahitaez ekarri behar du sinatzailearen ordain ekonomikoa handitzea. Hori guztia burutzeko, jokoan dagoen interes publikoa hartu behar da kontuan (zerbitzua ematen jarraitzea) eta, horrela, Administrazioak sinatzailearen egoera adostu beharko du.

OINARRIAK: Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 n) artikulua eta baterakoak, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak aldatu zuena; apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzazko Errege Dekretuak onetsi zuen testu bat eginaren 23. artikulua eta baterakoak; Udalbatzen Zerbitzuaren Araudiaren 127. artikulua eta baterakoak; Kontratazioari buruzko 1965eko Legea eta Kontratazioari buruzko 1966ko Araudi Orokorra; Udalbatzen Kontratazioari buruzko Araudia Orokorra (zerbitzua eraentzen duten pleguak onetsitakoan indarrean zegoen legeria).



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

Ogasun eta Kontu Berezien Informazio Batzordeak egoki iritzi dio udalaren osoko bilkurari honako erabaki-proposamena proposatzeari:

LEHENENGOA: "Asociación de Asistencia Integral LAGUNDUZ" elkarteari (IFK: G-48682678), udalaren osoko bilkurak 1994ko azaroaren 10ean hartutako erabakiaren bitartez etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kudeaketa kontratuaren adjudikazioduna den aldetik, 12.848,24 € ordainduko zaizkio, KONTRATUAREN OREKA EKONOMIKOA BERREZARTZEKO. Horrela bada, 2003ko uztailaren 10eko arbitrajeko epaiaren ondorioz onetsitako sektoreko Probintziako Hitzarmenak atzeraeraginez aintzatetsitako soldata gehikuntzak konpentsatuko dira; ondorioz, etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kudeaketa kontratua aldatuko da. Enpresak, langileei atzerapena ordaindu dizkiola egiaztatu beharko dio udalari.

BIGARRENA: Onetsi egingo da ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN prezioen berrikuspena; 2004/01/01 egunetik aurrera aplikatu daiteke hori eta, horrenbestez, zerbitzuari aplikatu dakiokeen orduko prezioa 17,18 €-koa izango da, aurrekarietan adierazitakoaren arabera.

HIRUGARRENA: Baimendu egingo da kontratuaren berrezarpen ekonomikorako eta ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN prezioen berrikuspenerako beharrezko gastua.

LAUGARRENA: Alkatetza-udalburutzari eskuordetuko zaio erabaki hau burutzeko erabaki egokiak hartzeko ardura.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena eta ALKATETZA UDALBURUTZAK gai hori onesteko **dekretua eman du**. Bada, gai hau udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalbatzak, osoko bilkuran eta **aho batez**, Ogasun eta Kontu Berezien Informazio Batzordeak 2004ko martxoaren 10ean hartu zuen 63. zenbakidun irizpena berrestea erabaki du, bai eta espedientean agertzen den Gizartekintza, Osasun eta Kontsumo Saileko Informazio Batzordeak 2003ko otsailaren 17an hartu zuen 212. zenbakidun irizpena berrestea ere; era berean, Alkatetza-udalburutzak 2004ko martxoaren 16ko Tokiko Gobernu Batzarrean emandako 213. ebazpena ere berrestea erabaki du, akordioan agertzen diren terminoen arabera.

5.- KREDITUAK ALDATZEKO ESPEDIENTEA; MOTA: 'EUSKARAREN ERAKUNDEA' ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUAREN 1/2004 ZK.KO KREDITU-GEHIGARRIA: 2004ko martxoaren 23an Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran onetsi zen Alkatetza-Udalburutzaren 263/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari; osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Ogasun eta Kontu Berezien Informazio Batzordeak 2004ko martxoaren 17an hartu zuen 68. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

'Euskararen Erakundea' Erakunde Autonomoaren 2004-02-19ko proposamena aztertu da. Izan ere, horren bidez kredituak aldatzeko espediente bat proposatu dio Batzorde honi; mota: Diruzaintzako gerakin likidoaren kargurako kreditu-gehigarria.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen Aurrekontuari buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 34. artikulua eta aurrekontuak betearazteko udal arauaren 4.f) oinarriak xedatutakoari jarraiki, kreditu-gehigarriak modu hauetara finantza daitezke:

- Diruzaintzako gerakin likidoaren kargura.
- Benetan bildutako diru-sarrera berri edo handiagoen bidez.
- Aurrekontuko beste partida batzuen kreditua deuseztatuz edo horri baja emanaz.

Hona hemen gehikuntzaren zenbatekoa eta finantzazio modua azalduta:

KREDITU-GEHIGARRIA

AURREKONTU PARTIDA	IZENA	GEHITU BEHARREKO ZENBATEKOA
4214.226.99	Askotariko gastuak. Euskara Zerbitzuko euskara sustatzeko jarduera	30.000,00 €
GUZTIRA		30.000,00 €

FINANTZAZIOA

AURREKONTU KONTZEPTUA	IZENA	ERABILITAKO ZENBATEKOA
87001	Gerakinen eransketa	30.000,00 €

Osoko bilkurari dagokio espediente hau onestea, aurrekontuak betearazteko udal arauan xedatutakoaren arabera.

Ogasun eta Kontu Berezien Informazio Batzordeak honakoa egitea egokia dela adierazi du:

- Honakoaren aldeko irizpena emango da: kredituak aldatzeko espedientea; mota: 'Euskararen Erakundea' Erakunde Autonomoaren aurrekontuaren 1/2004 zk.ko kreditu-gehigarria, irizpen honetan aipatutakoa hain zuzen ere.
- Kredituak aldatzeko espedientea onesteari buruzko puntua udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo bileraren aztergaien zerrendan sartzea.
- Espedientea jendaurrean azalduko da hamabost egunez eta horretarako horri buruzko iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzen erreklamazioak egin ahal izango dituzte. Espedientea jendaurrean azaltzeko epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, berori behin betiko onetsizat hartuko litzateke, hori guztia Tokiko Erakundearen Aurrekontuari buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 15. artikuluan ezarritakoa aintzat hartuta.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena eta ALKATETZA UDALBURUTZAK gai hori onesteko **dekretua eman du**. Bada, gai hau udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak honakoa adierazi du:

Bere alderdia puntu honetan abstenitu egingo da; euren ustez zenbatekoa altua da, aldatu den bezala aldatzeko.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Bere alderdia, Euskararen Erakundearen bileran esan zuten moduan, puntu honetan abstenitu egingo dela adierazi du, izan ere, ikusten dute aldaketa hau datorrela Ibilaldiari dirulaguntza emateagatik. Azaldu du ere Hezkuntza Batzordean esan zutela, eta berriro hemen esango dutela, Ibilaldiaren antolatzaileek ez dutela inolako egitaraurik aurkeztu, eta beraz, ez dakitela zehatz-mehatz zer egingo duten 30.000 € horiekin. Horren inguruan gogoratu nahi du normalean kultura, kirola edo hezkuntza arloetan edozein dirulaguntza jasotzeko ezinbestekoa izaten dela egitarau bat aurkeztea eta kasu honetan hori ez dela bete adierazi du. Gainera, eta diru kopuruari dagokionez, gehiegi iruditzen zaie; izan ere, esate baterako, ikasturte honetan eskola publikoek 23.000 €-ko dirulaguntza jasoko dute guztira eskola orduz kanpoko jarduerak antolatzeko eta orain kopuru hori baino gehiago emango da eskola pribatu batzuen jarduera bakar bat antolatzeko. Hau dena kontuan harturik adierazi du ezin diotela euren baiezkotza eman kreditu aldaketa honi, eta beraz, abstenitu egingo direla puntu honetan.

EAJ-PNVko Jesús Bilbao Curiel jaunak honakoa adierazi du:

Polemika handirik sortzeko gogorik gabe adierazi du, alde batetik, diru kopuruaren inguruan kontuan hartu behar dutela bost urte barru ospatu egingo dela jai berbera baina Sopelan eta bere garaian hartu zuten akordioaren arabera, aurten Leioako Udala izango dela dirulaguntza parterik handiena, edo ia dena, jarriko duena, eta hurrengo jaialdian, hau da Sopelan egiten denean, Sopelako Udala izango dela. Beraz, diru kopurua ez da dirudien bezain handia.

Beste alde batetik, alderdi popularraren aldetik eskatu den informazio horri dagokionez, esan du beste batzuetan esan duten bezala, agian posible izan litekeela eta garaiz daudela oraindik bileren informatibo bat egiteko eta bertan argitzeko argitzeke egon daitezkeen puntuak. Ondorioz bere ustez, hemendik aurrera bilera bat antolatu ahal izango dute informazio zehatzagoa edukitzeko.

IU-EBko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak honakoa adierazi du:

Aurrekoetan ere ados egon ez badira beste udalerririk batzuetan antolatutako Ibilaldietarako dirulaguntzekin, kasu honetan, eta kopurua hainbat handitu dela ikusita, proiektu honi agertuko dioten oposizioa maila berean handitu beharko da; izan ere, bere ustez, gainera aldian-aldian eman beharreko dirulaguntza dela ematen du dagoeneko eta horrek beldurra eman lezake agian. Artatzako eskola nola dagoen ikusita eta aurreko Ibilaldiari esker Ikastolan eraiki duten kiroldegi erraldoia ikusita, gezurra badirudi ere orain berriro dirua bilduko dute euren egoera ekonomiko negargarria hobetzeko, antza. Horrela bada, diru publikoaren erabilera pixka bat galbideratzea badela iruditzen zaio eta herrialdean eskaintzen diren eskolatze mota ezberdinen aukera berdintasunen aurka doala. Hori dela eta, ezin izango dute ere espedientea onetsi.

PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak honakoa adierazi du:

Aurrerago hitz egin duenean kopurua bakarrik ukitu duela adierazi du, eta ez duela ezer esan diruaren erabilerrari buruz, espedientean ez delako erabilera agertzen, orduan kopuruari buruzko iritzia baino ez duela eman. Dirua zertarako erabiliko den argitu ondoren,



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

bozketan abstentzioa mantenduko dutela adierazi du, gainera honakoa esan du: Ibilaldiaren moduko ekimenak beharrezkoak izan ziren bere garaian, hau da, euskal irakaskuntzak aparteko laguntza behar izan zuen garai batean euskal irakaskuntza ematen zuten itunpeko ikastetxe pribatuak, itunpeko ikastetxe pribatuak ez zirenean, alegia. Dena dela orain, eta deialdi honetarako hain zuzen, Hezkuntza Saitetik finantzazio nahikoa eskuratzen duten itunpeko bi ikastetxe pribatuez ari gara, horrenbestez dagoeneko beharrezko finantzazioa jasotzen dute eurez ustez eta gainerako finantzazioa zirkunstantzia berdinetan dauden beste itunpeko ikastetxe pribatuekin lehiatu beharko dute aukera-berdintasunean. Halaber, antolakuntzaren inguruan badu zer esanik, herrian kaos itzela sortu baitaiteke, nahiz eta kaosa ezin zaion deialdiaren xedeari egotzi, bilduko den jendetza izango delako horren arrazoia.

Bukatzeko azaldu du abstentzioa mantentzen dutela; izan ere, dirua zehatz-mehatz zertarako erabiliko den jakin eta gero, ez daude ados egiten den planteamendurekin.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Bozketan aldeko hamaika boto izan dira guztira, EAJ-PNVko hamar ordezkarietak eta EAko zinegotziarena. Abstentzioak hamar izan dira, PSE-EE-PSOeko lau zinegotzietan, PPko lau zinegotzietan eta IU-EBko bi ordezkarietak. Ondorioz, udalaren osoko bilkurak **gehiengoz erabaki du** gorago aipatutako kredituak aldatzeko espedientea **onestea**, Ogasun eta Kontu Berezien Informazio Batzordearen irizpena oinarri hartuta.

6.- UDAL KIROL INSTALAZIOAK: KIROL TALDEEI DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO PROPOSAMENA: 2004ko martxoaren 23an Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran onetsi zen Alkatetza-Udalburutzaren 252/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari; osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Kultura, Kirola eta Gazteria Saileko Informazio Batzordeak 2004ko martxoaren 16an hartu zuen 60. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Batzorde honetako presidentetarako, Jon Loizaga Cayero jaunak, udalerriko kirol taldeei diru-laguntzak emateko proposamena aurkeztu du, honako hau, hain zuzen ere:

KIROL TALDEAK	2003an EMANDAKOA	2004rako PROPOSAMENA
Sdad. Deportiva de Leioa	6.078,63	6.236,67
A. Deportiva Lagun Artea	3.281,52	3.366,84
Leioa Mendi Taldea	2.500,21	2.565,22
Club de Gimnasia Rítmica Sakoneta	2.500,21	2.565,22
Club Irristaketa Taldea	1.983,34	2.034,91
Sociedad de Tiro y Caza	843,82	865,76
Escuela de Fútbol Txantxarre	3.281,52	3.366,84
Leioa Judo Taldea	1.078,22	1.106,25
Leioako Euskal Kirol Zaleak	3.281,52	3.366,84
Leioa Saskibaloia Taldea	5.312,94	5.451,08
Hartzak Esku Pilota	1.652,78	1.695,75
Leioako Kastoreak	2.500,21	2.565,22
Maya Fútbol Taldea	495,84	508,73



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

Sociedad Ciclista Txorierri	718,81	737,50
Club de Esgrima. Sala de Armas Leioa	562,55	577,18
Leioako Emakumeak Sarriena Futbol Kirol	1.000,00	1.026,00
C.D. Irlandesas		
C.D. Gazteluzarra		
Club Askartza de Waterpolo		
Betiko Ikastola		
GUZTIRA, eskatutako eta erabilgarria	37.072,12	38.036,00

Kultura, Kirola eta Gazteria Saileko Informazio Batzordeak egoki iritzi dio aurkeztutako proposamenaren aldeko txostena emateari; hala ere, PPko bozeramaileek beren proposamenean Gazteluzarra futbol-taldeari 300 euro gehi KPI duen diru-laguntza eman nahi dietela ager dadila eskatu dute; era berean IU-EBko bozeramaileak adierazi du bere proposamenean diru-laguntza kendu nahi diola Sociedad de Tiro y Caza elkarteari eta, zenbateko hori Leioako Emakumeak Sarriena Futbol Kirol Taldeari eman.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena eta ALKATETZA UDALBURUTZAK gai hori onesteko **dekretua eman du**. Bada, gai hau udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaz jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi duenez, hasiera batean ados daude kirol talde ezberdinentzat proposatutako diru-laguntzekin; hala ere, azpimarratu du diru-laguntza eskatu duen Gazteluzaharra Kirol Taldeari eskatutako diru-laguntza emateko proposatu ziotela Kultura, Kirola eta Gazteria Saileko Informazio Batzordeari; antza denez, Gobernu Taldeak, beste behin ez du kontuan izan eta, ondorioz, 300 € gehi 2003ko KPI zenbatekoa izango duen diru-laguntza proposatu dute Club Deportivo Gazteluzaharra taldearentzat.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalbatzak, osoko bilkuran eta **aho batez** udalerriko **kirol taldeei** eman beharreko diru-laguntzen proposamena onestea erabaki du; zenbatekoa: 38.036 €.

7.- KULTURA ARLOA: KULTUR TALDEEI DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO PROPOSAMENA:

2004ko martxoaren 23an Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran onetsi zen Alkatetza-Udalburutzaren 256/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari; osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Kultura, Kirola eta Gazteria Saileko Informazio Batzordeak 2004ko martxoaren 16an hartu zuen 66. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Batzorde honetako presidentek, Jon Loizaga Cayero jaunak, udalerriko kultur taldeei diru-laguntzak emateko proposamena aurkeztu du, honako hau, hain zuzen ere:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

URTEKO DIRU-LAGUNTZAK

Taldea	2003ko diru-laguntza	2004rako eskatutakoa	2004rako proposamena
Txikiak dantza taldea	600,00 €	1.782,73 €	615,60 €
Izotz*	1.400,00 €	DEUSEZTATUTAKO ELK	DEUSEZTATUTAKO ELK
Biltoki	2.375,00 €	4.651,07 €	2.436,75 €
Amets Berria	2.375,00 €	4.025,00 €	2.436,75 €
Epi y Blas	2.375,00 €	5.000,00 €	2.436,75 €
Cdad. Castellana	1.400,00 €	2.432,00 €	1.436,40 €
Pinueta Lagunak	1.300,00 €	3.438,00 €	1.333,80 €
Sdad. Micológica Zazpi	2.530,00 €	8.148,57 €	2.595,78 €
Andrak*	--	3.915,00 €	0,00 € lokalak lagatzea
Zazpiak bat	--	18.568,00 €	600,00 €
Leioarte*	--	17.000,00 €	0,00 €
Leioa Mendi Taldea		3.500,00 €	0,00 € Mendi Astea
Coral San Juan Bautista	5620,00 €		0,00 € (Hitzarmena, 7000 €)
GUZTIRA	19.975,00 €	72.460,37 €	13.891,83 €

Kultura, Kirola eta Gazteria Saileko Informazio Batzordeak egoki iritzi dio aurkeztutako proposamenaren aldeko txostena emateari; hala ere, PPko bozeramaileek honakoa adierazi nahi izan dute:

Amets Berria taldea. Adierazi dutenez, aipatutako taldeari EAJ-PNV taldeak eman beharko lioke diru-laguntza, eta ez Leioako Udalak; hori dela eta, diru-laguntza kentzea proposatu dute.

Zazpiak Bat. Ideologia politikoa duen taldea dela uste dute eta, ondorioz, udalak diru-laguntzarik eman ezin diola uste dute; beraz, diru-laguntza kentzea proposatu dute..

PSEko ordezkariak adierazi dute beren talde politikoak ez duela nahi Zazpiak Bat taldeak inolako diru-laguntzarik jasotzea, kontzeptu gisa.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena eta ALKATETZA UDALBURUTZAK gai hori onesteko **dekretua eman du**. Bada, gai hau udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Kultur taldeentzat proposatu diren diru-laguntzei dagokienez, ados daudela adierazi zuen, talde birentzat proposatutako diru-laguntzei dagokienez izan ezik: Alde batetik, Zazpiak Bat elkartearentzat proposatutako diru-laguntza, beren ustez, bertako helburuen artean kulturarekin zerikusirik ez duten edo kulturaren eremua gainditzen dutenak daudelako; horregatik, diru-laguntza hori jaso behar ez dutela uste dute. Diru-laguntza jaso beharko ez lukeela uste duten beste elkarteak Amets Berria elkarteak da: egiaztatu ahal izan duten moduan, elkarteek eurek diru-laguntzari buruzko irizpena eman ahal izateko emandako informazioaren bitartez, elkarte horren egitarauan Leioako Batzokiko jarduerak arautzea edo Sabin Etxeko jaiak egitea agertzen dira; jakina den bezala, Sabin Etxea Eusko Alderdi Jeltzaleak Bilbon duen egoitza nagusia da. Jarduera egitarau hori ikusi dute eta, beren ustez, jarduera horiekin elkarte



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

edo talde horretan izena ematen duten ume eta gazteak alderdi politiko jakin bati hurbiltzea lortu nahi da; bada, jarduera horiek aisialdi elkarte baten berezko kultur jardueretatik kanpo geratzen direla uste dutenez, Gobernu Taldeak proposatutako 2.436 €-ko diru-laguntza ez ematea eskatu dute. Aurretiaz esan duten bezala, beren ustez, aisialdiko elkarte batek ez lituzke horrelako jarduerak izan behar bere egitarauan eta, horregatik, beren ustez, ez du merezi Kultura Sailak aipatutako diru-laguntza ematea, elkarte EAJrekin argi eta garbi lotuta dagoela uste dutelako; izan ere, gainera, beren jarduera batzuk aipatutako alderdiak udalerrian duen aldizkarian argitaratzen dira eta, hori guztia dela eta, diru-laguntzarik jaso beharko ez lukeela uste du.

Gainerako diru-laguntzekin ados daude, horiek biak izan ezik, Amets Berria elkartearena eta Zazpiak Bat elkartearena; diru-laguntzarik eman beharko ez litzaiekeela uste dute.

PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak honakoa adierazi du:

Gauza bi azaldu nahi izan ditu: lehenengo eta behin, diru-laguntzen proposamenak bereizita bozkatu nahiko lituzke; bigarrenaz, partidaren guztizko zenbatekoa 6.000 €-tan murriztearen zergatia jakin nahiko luke; edo ez du ondo ulertu edo arrazoiren bat egon behar da, espedientea ikusita guztizko kopurua 6.000 €-tan murriztu baita.

EAJ-PNVko Jon Loizaga Cayero jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du une honetan ez dituela datuak, baina gogoratzen duenez zenbateko horren barruan kiroletarako erabilitako partida bat ere bazegoen; orain ezin dio zehatz erantzun, baina Kultura Batzordean ikusi zen zenbakiak bat zetoze, eta ez zegoela horrelako desfaserik.

PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak honakoa adierazi du:

Ahal bada, diru-laguntzak bereizita bozkatzeko eskatu du. Bereizita bozkatu ahal izango balitz, baiezko botoa emango liekete diru-laguntza guztiei, Zazpiak Bat elkartearentzat proposatutako diru-laguntzari izan ezik; guztiak batera bozkatzekotan, abstentzioa izango litzateke euren erantzuna.

Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak, honakoa adierazi du:

Guztiak ados egotekotan, hiru bozketa egingo dira, lehenengoa Zazpiak Bat elkarterako, bigarrena Amets Berria elkarterako eta hirugarrena gainerako elkarteetarako.

PPko ordezkariak Amets Berria eta Zazpiak Bat elkartei esleitutako diru-laguntzak kentzeko egindako proposamena bozkatu da:

PPko ORDEZKARIEK ZAZPIAK BAT ELKARTEAREN DIRU-LAGUNTZA KENTZEKO EGINDAKO PROPOSAMENAREN BOZKETA

Kontrako hamahiru boto, EAJ-PNVko hamar zinegotziek, IU-EBko bi zinegotziek eta EAko zinegotziak emandakoak; **aldeko zortzi boto**, PPko lau zinegotziek eta PSE-EE-PSOE lau zinegotziek emandakoak; ondorioz, proposamena **gaitziritzi** egin da.

PPko ORDEZKARIEK AMETS BERRIA ELKARTEAREN DIRU-LAGUNTZA KENTZEKO EGINDAKO PROPOSAMENAREN BOZKETA

Kontrako hamazazpi boto, EAJ-PNVko hamar zinegotziek, IU-EBko bi zinegotziek, EAko zinegotziak eta PSE-EE-PSOE lau zinegotziek emandakoak; **aldeko lau boto**, PPko lau zinegotziek emandakoak; ondorioz, era berean, proposamena **gaitziritzi** egin da.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

Ondoren, Kultura, Kirola eta Gazteria Saileko Informazio Batzordean aurkeztutako proposamena bozkatu da; emaitza, jarraian adierazitako erabakian agertzen da:

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Ondoren, Udaltzako, osoko bilkuran eta **aho batez** udalerriko **kultur taldeei** eman beharreko diru-laguntzen proposamena onestea erabaki du; guztizko zenbatekoa: **13.891,83 €**; proposamena Kultura, Kirola eta Gazteria Saileko Informazio Batzordean aurkeztu zen.

8.- EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA (EBPN): 2004ko martxoaren 23an Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran onetsi zen Alkatetza-Udalburutzaren 271/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari; osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hezkuntza eta Hizkuntza Politika Saileko Informazio Batzordeak 2004ko martxoaren 16an hartu zuen 56. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

‘Euskararen Erakundea’ Erakunde Autonomoaren Batzar Artezkariak 2004ko otsailaren 19an egindako bileran, ondoren hitzez hitz agertzen den erabakia hartu du, EBPN planari buruz:

“Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiari buruzko informazioa ematea eta ekarpenak jasotzea.

Josu Esnaola, Euskara Zerbitzuko Teknikariak eta Euskararen Erakundearen Presidenteak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren ingurukoak azaltzen dituzte. Zabalik dagoen agiria dela diote, beraz ekarpenen zain dagoela. Halaber, herriko kolektibo konkretu batzuei luzatu zaiela zuzenean partaidetza izateko, baina batzarkideek bestelako sektore batzuetara zabaltzeko ideiarik izanez gero, gustora entzungo direla iradokizunak.

Xabier Olabarrieta jaunak dio bere taldeak laguntza emango duela, baita ekarpenak ekarri ere. Halaber, badaukala galdera/proposamen bat: “kontuan hartu al da Unibertsitatea?” Txus Bilbao jaunari proposamen ona iruditzen zaio. Horrela egingo da.

EBPN izeneko plana aurkeztuzat ematen da.

Txus Bilbao jaunaren eta Luis Ernesto Trigueros jaunaren aldeko botuekin APROBATU egiten da plana. Xabier Olabarrieta jaunak dio bilera honen ostean jakinean daudela eta taldean aztertzeke daudela; aldeko botua ematekotan Udaltzakoan egingo dutela.”

“Plan General de Promoción de Uso del Euskera. Información y recogida de aportaciones.

Josu Esnaola, Técnico del Servicio de Euskera y el Presidente de Euskararen Erakundea informan sobre el Plan General de Uso del Euskera. Explican que es un documento abierto, y que por tanto caben aportaciones. Asimismo, señalan que se ha hecho llegar el Plan a algunos colectivos del municipio a fin de que puedan participar en el mismo, pero que si los miembros de la Junta lo consideraran oportuno se ampliaría a otros sectores.

Don Xabier Olabarrieta hace saber que su grupo colaborará con sus aportaciones. Asimismo plantea si se ha tenido en cuenta la Universidad. Al Presidente de la Junta, le parece una buena propuesta y se toma el compromiso de hacerlo así.

El Plan de Promoción de Uso del Euskera se da por presentado y SE APRUEBA el Plan con los votos a favor de don Jesús Bilbao Curiel y de don Luis Ernesto Trigueros Santa



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

Coloma. Don Xabier Olabarrieta Arnaiz dice que se da por enterado y que su grupo lo estudiará, y si fuera pertinente dará su voto favorable en el Pleno Municipal.”

Planaren kopia bana eman zaie Batzordekideei eta adierazi zaie Toki Araubideari buruzko Oinarriak araupetzen dituen Legearen 20.1.c) artikuluan xedatutakoa aplikatzeko, Batzorde honek gaiari buruzko irizpena eman beharko duela, Udalaren osoko bilkurak horren inguruko erabakia har dezan gero.

Jesús Bilbao Curiel jaunak, 'Euskararen Erakundea' Erakunde Autonomoaren Presidenteak, labur-labur aipatu du aurkeztutako Plana programa itxura duela eta ekintza jakinak egin behar direla plana zabaldu dadin. Zentzu horretan plana aurrera eramateko behar beste langileak behar direla aipatu du. Beste alde batetik, Planaren egitura osatzen duten atal nagusiak berrikusi ditu eta herriko kolektiboen laguntza eskuzabala bereziki aipatu du, kolektiboek zorianak eman dizkie eta osoko bilkuran kolektiboak zuzenean aipatzeko asmoa duela adierazi duen.

Bestalde Plana zabalik dagoen agiria dela eta kolektiboek planean parte hartu ahal dutela azpimarratu du. Halaber, Alderdi Popularra eta Ezker Batua udal taldeek aurkeztutako zenbait proposamen gehituko direla azpimarratu du; bileraren aktari erantsitako testua zuzenduko dela adierazi du, hau da, batzordekideei bilera honetan banatu zaien agirian agertzen ez diren ekarpenak gehituko direla.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika, Prestakuntza eta Enplegu Informazio Batzordeak bozketa egin du. Bozketan EAJ-PNVko Bixen Barreiro Asensio jaunak, Bea Resa Bardeci andreak, Jesús Bilbao Curiel jaunak eta Ainara Urbieta Bergara andreak, IU-EBko Rubén Belandía Fradejas jaunak eta EAKo Ernesto Angel Trigueros Santa Coloma jaunak aldeko botoa eman dute. Ondorioz, Informazio Batzordeak erabaki du Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPN) aldeko irizpena ematea. Bozketan lau abstentzio izan dira, PSE-EE-PSOeko Nieves Hurtado Urtiaga andrearena eta Mercedes Angulo Ordozgoiti andrearena, eta PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunarena eta Aiala Egiluz Rodríguez andrearena, eta adierazi dute udalaren osoko bilkuran emango dutela plan honetaz duten iritzia.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena eta ALKATETZA UDALBURUTZAK gai hori onesteko **dekretua eman du**. Bada, gai hau udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak honakoa adierazi du:

Bere alderdia puntu honetan abstenitu egingo da. Lehenengo eta behin esan du, euskara normalizatzeko plana beharrezkoa dela aitortu beharra dagoela; honetan lan egiten duenak ulertu egiten du, eta oso iritzi eztabaidagarria dela uste du. Proposamenetariko batzuekin ados daudela eta beste batzuekin, ordea, ados ez daudela albo batera utzita, bere garaian horretaz mintzatu zen, eta gauza batzuk oso argi ikusten zituzten, beste batzuk ez hain argi eta beste batzuetan nahiko aurka zeuden euren ikuspuntutik. Baina egiten diren proposamenen inguruan, finkatzen diren ildoen inguruan, gehien kezkatzen zaiena da Udalak bere jardun-eremutik kanpoko eskumen gehiegi hartzen dituela; horrenbestez, egin ezin dituen gauzak egiteko ardura hartzen du. Hori dela eta, bozketa honetan abstenitzea erabaki dute eta, geroago, normalizazio planaren ideia nagusiak egiten edo zehazten joan ahala, eztabaidatu egingo dituzte, jorratu egingo dituzte eta plana aurrera eramango dute ados dauden ideien aldetik eta ados ez daudenei dagokienez, uste dutena esango dute.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

Udalerrri honetan ezarri beharreko euskara biziberritzeko plan nagusiaren inguruan zenbait gauza esan ditu. Lehenik eta behin, euskarari laguntzeko plan nagusi bat izatea beti positiboa dela iruditzen zaie, euskarari beti lagundu behar baitzaio. Edonola ere, euren ustez plan hau birplanteatu egin behar da, egin litezkeen hobekuntza puntualez gain, Euskararen Erakundearen Batzar Artezkarian eta Hezkuntza Batzordean egindako aurkezpenean proposatu den ildotik alegia; izan ere, bere alderdikoek plana irakurri eta aztertzerakoan ikusi dute plan honek, azken finean, euskara sustatu nahi duela eta hori berez positiboa da baina ez du kontuan hartzen euskal gizarteak eta Leioak, bereziki, bi hizkuntza ofizialek, euskarak eta gaztelaniak, autonomia erkidegoan elkarrekin bizitzea lortu behar duela, hau da, bi hizkuntza ofizialen bizikidetzaren normalizazioa lortu behar duela, eta horixe dela lortu nahi den helburua eta plana, ez euskara kosta ahala kosta sustatzea bakarrik, baizik eta euskara sustatzea, honako helburu hau aintzat hartuta: gizarte elebiduna lortzea esparru guztietan, eta euren ustez, planak ez du hori helburu.

Adibide batzuk ipini ditu euren ustez planaren ildo zuzena ez dela azaltzeko. Alderdi larrietako bat irakaskuntzarena dela adierazi du, eta errealitateak esaten ari diela zein ildo segitzen den gaur egun Leioan; bere ustez D eredu matrikulazioa bakar-bakarrik, hau da, euskarazko eredu bakar-bakarrik sustatzen ari da eta oker egiten ari da. Ikusi besterik ez da egin behar Euskara Zerbitzuak gauzatu eta Udalak babestu duen azken kanpaina. Udalerriko gurasoei zuzenduta egon da hori eta bertan esaten zen eredu euskaldunak eta D eredu, batik bat, aukerakoena zela seme-alabak matrikulatzerakoan. Aurreko urteetan ez bezala, aurten B eredu, eredu elebiduna, ez da ezertarako aipatzen, eta jakina A eredu ere ez da aipatzen; izan ere, badira urteak A eredu Leioako eskola publikoetako eskaintzatik kendu dutela. Horrelako kanpainen bidez, urte gutxi barru B ereduaren eskaintza Leioatik desagertuko eta, horrekin batera, egoera larri batera helduko gara: Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialeko bat, Leioako ikastetxe publikoetatik behintzat desagertuko da, irakaskuntza arloko transmisio hizkuntza bezala. Horixe da irakaskuntzaren esparruan eta planean, oro har, atzetik dagoen ildo, hau da, euskara sustatzea gizarte elebidun baten errealitatea kontuan hartu barik.

Planaren ildo zuzena ez dela frogatzeko beste adibide batzuk ipini ditu familiaren esparruari loturik; proposatu diren ekintzetako bat seme-alaben ama hizkuntza euskara izatea da. Euren ustez, hori ez da horrela izan behar, kasu guztietan, eta derrigorrean, baizik eta errealitate elebiduna izan daitekeela bai euskaraz bai gaztelaniaz.

Lan esparruan, adibidez, bertako enpresekiko harremanetan euskara lehenestea aipatzen da, eta euren ustez, ekintza hori ez da zuzena ere.

Kulturgintzan euskara hutsezko ekimenak abian jartzen dituzten elkarteei laguntza bereziak ematea da ekintzetako bat. Dena dela, euskara hutsezko jardueraz gain, jarduera elebidunak ere sustatzea oso positibo iruditzen zaie.

Bestetik, Administrazio esparruko ekintza batzuk ere ezin dituzte onartu, Udalak egiten dituen hornikuntza kontratuetan hizkuntza-irizpideak ezarriko direla esaten da, baita Udalak egiten dituen obra kontratuetan ere. Hizkuntza-irizpidea esparru ez zuzenetara hedatzea dela pentsatzen dute; honen aurrean gehiegikeriaz jokatzeko dela iruditzen zaie.

Bukatzeko, adibide bezala, esaten da Udalak euskarazko komunikabideak lehenestuzko izendatuko dituela udalak eta bere autonomiadun erakundeek argitaratu beharreko iragarkietan. Euren ustez komunikabide bat euskarazkoa izateak ez dio, nahitaez, lehenasuna eman behar bertan udalaren eta bere autonomiadun erakundearen iragarkiak argitaratzeko.

Esandako horiek euren ustez plan honetan proposatu diren ekintza ez zuzenen adibide batzuk baino ez dira eta euskara biziberritzeko plan bat zer ez den izan behar erakusten dute. Bere iritziz elebitasuna sustatzeko plana izan beharko litzateke.

Alderdi Popularrak horregatik guztiagatik planaren alde ezin duela egin eta abstenitu egingo direla adierazi du.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

Bukatzeko esan du akats gramatikal batzuk ikusi dituztela planaren orrietan eta, behin betiko argitaratu aurretik horiek zuzendu egin behar direla uste dute. Eurek aukera hau proposatuko luketela azpimarratu dute: Hezkuntza Sailari eta Euskararen Erakundearen Batzar Artezkariari plan hau itzultzea, berori goitik behera birdefinitzearen.

IU-EBko Rubén Belandia Fradejas jaunak honakoa adierazi du:

Ezker Batuak plan honen aldeko botoa bi arrazoiengatik emango duela adierazi du: lehenengoa, herri honetan gizarte elebiduna sortzea delako helburua. Beraiek ez dute planteatzen euskara izatea hemengo hizkuntza bakarra, alde batetik ezinezkoa izango litzatekeelako; mundua gero anitzagoa baita, eta herria, Leioa bera, ere gero eta anitzagoa baita eta nahi dutena da aniztasun hori bermatzea, baina kontuan hartu behar da bi hizkuntzak ez daudela egoera bereberetan eta euskarak beharrezkoa daukala laguntza elebitasun hori lortzeko, eta, euren ustez, horixe da planaren helburua eta horregatik aldeko botoa emango dute, elebitasun hori lortzeko ezinbestekoa delako ahulen dagoen hizkuntza bultzatzea eta babestea planean planteatzen diren neurrien bitartez. Aldeko botoa emateko bigarren arrazoia da plana sortzeko prozedura bera ere, non aukera izan duten nahi izan duten guztia planteatzeko bai talde politikoek bai gizarte taldeek. Borondate osoa egon da, kasu honetan, Euskararen Erakundearen aldetik eta bere Presidentearen aldetik, ekarpen horiek modu onenean tratatzeko; izan ere, eurek euren ekarpenak egin dituzte eta hor daude jasota. Beraz, prozedura aldetik ere, aukera guztiak egon dira planteatu diren hainbat gauza eztabaidatzeko eta gutxienez beraiek planteatu dituztenak oso ondo hartuak izan dira eta hor bertan daude jasota eta, besterik gabe, onargarria eta erabat positiboa dela iruditzen zaie hemen planteatu den plana.

EAJ-PNVko Jesús Bilbao Curiel jaunak honakoa adierazi du:

Alderdi alderdi erantzun du. Lehenik eta behin Jose Manuel Toledo jaunari, Partido Socialista Obrero Españolari, eskerrak eman dizkio eman duten azalpenengatik. Alde batetik, eskertzen die plana beharrezkoa dela esan dutela. Hala ere, beste aldetik beldur batzuk badituztela esan du Toledo jaunak, lehenengoa da ez ote diren sartzen ari eurenak ez diren eskumen batzuetan eta udalak hartu beharko ez lituzkeen eskumen batzuk ez ote dituzten hartuko. Horri loturik, adierazi dio udalak ez daukala inolako asmorik berak ez dituen diruak gastatzeko, eta bere eskumenen barnean lan egingo duela; izan ere, Zigor Kodean eta beste arlo juridiko guztietan esaten den bezala, legediaren barnean egingo da plana. Edozelan ere, hemendik aurrera berriro eskaintzen die plan hau zelan kudeatuko den eta horretan guztiok parte hartzea eskatuko luke, PSE-EE-PSOEn taldeak ere, egiten dituzten ekimen guztietan PSE-EE-PSOEk bere iritzia emanez, plan hau guztiona izan dadin.

Ondoren Alderdi Popularreko bozeramaileari, Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunari erantzun dio. Horrela bada, adierazi du plan bat beharrezkoa dela esan dutela aitortu behar diola. Bere ustez, PPK egin dituen kritika batzuk agian izan daitezke justuagoak beste batzuk baino, baina adierazi du plan honek ez duela euskara sustatzea bakarrik bilatzen; izan badela euskararen aldeko plan bat da, baina horrek ez duela esan nahi gaztelania baztertu nahi duenik; gaztelaniaren kontrako ezer ez daukatelako eta gainera gaztelaniaren kontra ezer gutxi egin daitekeenik pentsatzen dute. Gainera udalak ez du halakorik egin nahi.

Beste alde batetik, planaren helburu nagusia zein den ulertu behar da: soziolinguistikaren arau bat; euskaldun guztiak elebidunak dira eta euskaldunak ez direnak elebakarrak dira (euskara eta gaztelaniari dagokionean), gero jakin dezakete beste hizkuntza bat edo dena delakoa. Orduan, euren arazoa izaten da oso aukera gutxi izaten dutela euskara erabiltzeko, pleno honetan erabiltzen ari dira, bat-bateko itzulpena daukatelako baina kalean hori



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

ezinezkoa da. Imajinatu behar dute leioaztar ume bat kirola egin behar duena entrenatzera doanean, ume guztiak euskaldunak ez direnez entrenamendu guztiak gaztelaniaz zuzenean izaten direla; ez dagoela euskaraz futboleant entrenatzerik adibidez, eta norbaitek esango ote du, beno, zergatik ezin dute euskaraz ikasi erdaldunek, gehiengoak elebiduna bada?, Beckamek gaztelania ikasi du eta Real Madrilentz gaztelaniaz entrenatzen dutela uste du. Gauza horiek ere egin litezkeela uste du. Orduan, beharrezkoak dira neurriak eta PPK ere aitortu du. Hori dela eta, ikuspuntu horretatik ulertu behar dira planean dauden neurriak. Adibidez, planak proposatzen du udalak publizitatea egiten duenean edo iragarkiren bat egunkarian argitaratzen duenean euskaraz ere egin behar duela eta abar, pentsatu egin behar delako euskara hutsean irakurtzen duen pertsona batek baduela eskubidea instituzioek egiten dituzten abisuak eta abar irakurtzeko. Halaber, esan du ez dutela galarazi nahi gauzak gaztelaniaz iragartzea ezta antzik ere, eta horrela ulertu egin behar dela proposamena.

Jarraian Ezker Batuko Rubén Belandía Fradejas jaunari erantzun dio. Bere alderdiak egin dituen proposamen guztiak onartu dituzte, eta hemendik aurrera horrela lan egiten jarraituko dutela espero du. Euren borondate ona eta egindako lana bihotzez eskertu die.

Ondoren aipatu du hemendik aurrera guztiak planarekin aurrera egin behar dutela; izan ere, ikuspuntu ezberdinak kontuan hartuta, plana modu askoz ere konstruktiboan aplikatu ahal izango da, momentu honetan oinarriak ezarri egin direlako guztien parte hartzearekin eta planaren kudeaketan, plana bera betetzeko beharrezkoak irizten diren jarraibideak ezarri behar dira.

Bukatzeko eskerrak eman dizkie Aholku Batzordea osatu duten herrikideei. Herrikide horiek astebete batean planaren lehengo zirriborroa –nahiko zirriborro tekniko- irakurri zuten eta euren ekarpenak egin zituzten eta gainera lan egin dute asmo onez, eta aderez eta ilusioz ere, esan liteke. Jarraian parte hartu dituzten lagun batzuk aipatu ditu: Iratxe Marta Linares, Lamia Euskaltegiko zuzendaria; Antonio Mendía González, Soinu Ataria Musika Eskolatik etortitako ordezkaria; Ramon Uribe Guarrotxena, Leioako Merkatarien Elkartearen ordezkaria; Jose María Pérez de Albeniz Onaindia, Leioako Guraso Elkartearen ordezkaria; Unai Orozko Eguzkitza, Biltoki aisia taldearen eta parrokiaren aldetik etorri zena; Ibon Landa Agirre, Leioa Futbol Kirol Taldekoa; Juan Pedro Rodríguez Díez, euskaltzale historiko bat Leioan, euskararen aldeko hainbat ekimenetan parte hartu duena; eta beraien ekarpenak, nahiz eta bilera horietara agertu ez, interesgarriak izan direlako oso aipatu ditu: alde batetik Koldo Tellitu Mejía, Betiko Ikastolako Zuzendaritza Batzordeko Lehendakaria; eta beste aldetik, beste herritar bat, Andoni Arteaga, merkataria, askotan bere dendan eta aspaldian eta momentu zailagoetan beti euskaren aldeko eta euskaraz erosi ahal izateko karteekin eta ibilitakoa, bera batzordearen parte sentitzen da baina osasun arazoengatik ezin izan da etorri; dena dela etorriko da hemendik aurrerako bileretara.

BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Bozketan **aldeko hamahiru boto** izan dira guztira, EAJ-PNVko hamar ordezkariak, IU-EBko bi zinegotziak eta EAKo zinegotziarena. **Abstentzioak zortzi** izan dira, PSE-EE-PSOeko lau ordezkariak eta PPko lau zinegotziak. Ondorioz, udalaren osoko bilkurak gehiengoz erabaki du *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onestea*.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

II.- UDALAREN OSOKO BILKURAK UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETARI EGITEN DION KONTROLA ETA JARRAIPENA

**9.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK ETA TOKIKO GOBERNU
BATZARREAN HARTUTAKO ERABAKIAK: 2004-02-21etik 2004-03-18ra:** Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilkurako espedientean agertzen dira, gero dagokien lekuan artxibatzeke kalterik gabe, epigrafean aipatutako epealdian Alkateak emandako dekretuen kopia eta Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileren akten kopia, azter ditzaten.

Udalaren osoko bilkura jakinaren gainean geratu da.

10.- PRESAZKO MOZIOAK

Atal honetan ez da moziorik aurkeztu.

11.- ESKARIAK ETA GALDERAK

Jarraian **IU-EBko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak** hitz egin eta honakoa galdetu du:

Lehenengo egunean EUDELeke presidentek babes ofizialeko etxebizitzaren araudiari buruz adierazitakoa irakurri zuen; adierazi du argi dagoela ados egongo ez lirakeela, baina hau ez dela hori azaltzeko lekua, Leioako alkatea den aldetik Leioa adibide gisa ipintzen denean izan ezik, udalerritik honetan Udalak Eusko Jaurlaritzak eraikitako etxebizitzaren bikoitza baino gehiago eraiki dituela adierazteko. Beraz honako galdera egin du: non daude berak zeudela ez zekizkien etxebizitza horiek?

Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak, honakoa adierazi du:

Adierazi duenez, berak ez du etxebizitza horiek eraiki direnik esan, baizik eta Udala Eusko Jaurlaritzak sustatu dituen etxebizitzaren bikoitza sustatzen ari dela.

Lehenengo eta behin, adierazi du berak, adibidez, Babes Ofizialeko Etxebizitzaren honako jardueretan parte hartu duela: Aldekoaneko 64 etxebizitzaren zozketa eta adjudikazioetan esku hartu du eta Eusko Jaurlaritzak bertan ez du parterik hartu; Estartetxeko 64 etxebizitza sozialetan, Eusko Jaurlaritzak eraiki zituen udal lurzoruan etxebizitza libre moduan eta, ondoren, udalaren erabakiz, etxebizitza sozial bihurtu ziren. Era berean, adierazi du une honetan Babes Ofizialeko 110 Etxebizitza daudela eraikitzen Lamiakon, Maturana sailburuak hasi zituen eta sustapena, eraikuntza eta zozketak Ormazabal sailburuarekin egin zituzten. Halaber, adierazi du lizentzia eman zaiela 55 etxebizitzari, Lamiakon etxebizitza sozialak hasteko; gainera, Leioako Udalak Mendibile, Txorierritik eta Pinosolo arloetan sustatutako 212 etxebizitza daude; horretarako, hitzarmena sinatu du Eusko Jaurlaritzarekin etxebizitza horien zozketa egiteko; une honetan,



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

lanean dabilta Ubedene arloan 124 eta 128 etxebizitza artean eraikitzeko. Era berean, espero du laster Udalak bere baliabideekin jardungo duen eragiketaren bitartez posible izango den plan bat aurkeztu ahal izatea.

Amaitzeko, adierazi du lanean dabiltzala San Bartolomé hutsik arloan Babes Ofizialeko 30 Etxebizitza egiteko eta, laster, berriro zatitzeko proiektua abiarazten denean, aurkeztu egingo da, etxebizitzok kudeatu eta eraikitzeko.

IU-EBko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi duenez, ez du EUDELeke presidentearen eta Etxebizitza sailburuaren arteko eztabaidan sartu nahi, ez eta etxebizitza jakin batzuk sustatu, kudeatu edo eraikitzeko datetan ere; seguruenik ez litzateke ados egongo, baina hori ez da orain aztertzen dabilzan arazoa. Adierazitakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzak etxebizitzak eraiki ditu eta Alkateak esan du Udalak bikoitza baino gehiago eraiki edo sustatu dituela, nahiz eta berak Leioan etxebizitzaren udal sustapenik egon denik jakin ez.

Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak, honakoa adierazi du:

Adierazi du lehengo hitzaldian jada azaldu duela Udalak nola sustatu dituen Babes Ofizialeko Etxebizitzak.

IU-EBko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak honakoa adierazi du:

Jasotako azalpenean konturatu da ez dakiela sustatzailea izatea zer den.

Eta ordu bata eta berrogeita hamabost minutu direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

O E
ALKATEA,

IDAZKARIA,